

ETA 9.-PILIPINIAK

Formosa'ren egoaldera dago Pilipiñak deritxon ugartedia, eun milla bitarte. 7 100 ugarte dira, geienak km. bat baiño laburragoak. Dana jota, lurrez España'ren erdia inguru dira. 30 milloi biztanle bizi dira bertan, geienak Europa'tik eta Ameriketatik joandakoen ondorengoak. Iru uritan dagoz biztanlerik geienak: Manila, Cebu, Iloilo.

Arrantzaleak eta zurgiñak dira asko, baiña geienak nekazariak. Basoak erdia baiño geiago beteten dabe eta balio aundikoak dira. Bitarteetan lora asko dago, batez be orkideak.

Arroza dabe janari nagusia, artoa, intxaurrak, frutak, kafea, kakaoa, kakauetea eta barazkiak be ugari daukez. Eta piztien artean, txarriak,, abelgorriak, auntzak, ardiak eta egaztiak, orein gorriak, basa-katuak, narraztiak eta sagutzarrak Eizagai onak dira aragi ona eta narru ohea daukelako. Emengo abereak Asia'koak baiño txikia- goak dira.

Lenengo biztanleak 1,42 metroko gizon ñañuak ziran, baltzak, adimen laburrekoak, eta orrizko txaboletan bizi ziran.

Lenengo eldu ziranak jentillak izan ziran, euren gorputzak margoztuta, zugatz-gaiñeetan bizi ziran.. Urren- go merkatari islandarrak etorri ziran Oneik izan ziran espñatarren arerio gogorrak.

Pilipiñak izena España'ko II Felipe erregearen ome- nez ipiñi eutsen. Izkelki asko dabez berba egiteko, tagaloa nagusi dala.

Era bitakoak dira biztanleak, batzuk buru-jabe dira- nak eta menpekoak beste batzuk. Dato deritxo onein nagusiari eta menpekoen bizia eta gauza guztiak bereak ditu. Gudan baituak izaten dira geienak.

Igorroteak dira kristiñau ez diran talde bat eta men- dietan bizi dira eta agureen batzarra dabe agintari. Eguzkia da euren jainkoa eta iretargia onen anaia da. Len buru-eiztari ziran baiña orain nekazaritzan egiten dabe lan. Batzuk txilibitua jotzen dabe, baiña zurretik, beste batzuk buruko ulea kentzen dabe bizarra lez.

Pilipindarrak geienak baketsuak dira, kristiñauak be bai, eta oraingo oiturak artu dabez.

Magallanes ospetsua zan baiña ezin eben ikusi eta naste aundiak sortu ebazan eta sartaldera urten bear izan eban, munduko itxaso guztiak igaroteko asmoz eta 1521n. urtean Pilipiñetara urreratu zan eta gezi bategaz il eben bertakoak. Elkano euskaldunak amaitu bear izan eban itxas-bira osoa.

Berrogei urte geroago Legazpi joan zan Zebu ugar- tera eta lenengo misiolariak eroan ebazan.



Filipindar neska.

Txina'tar itxas-lapurrak etorri ziran euren junkoetan eta olandarrak be etorten ziran espezien billa. Eta guz- tiak ziran alkarren etsai. 1762n. urtean Manila inglan- darren eskuetra jausi zan eta urrengo urtean barriro España'ri biurtu eutsoen.

Aspaldiko urteetan kolonialismua amaitu eta late- rriak jabetasun osoa lortu dabe eta orregaz batera aurrerapenak etorri dira lengo kolonietara: Traktorak, nekazaritzaren ordezkio industria,... sartaldeko jakituria eskuratu eta XX gizaldian bizikera ohea lortu dabe.

Olazar'tar Martin'ek